



# UDA IKASTAROAK CURSOS DE VERANO UPV/EHU

araudia

## Uda Ikastaroen XXXVII. ediziorako proposamenak aurkezteko araudia

Laguntzaile nagusiak

Fundación **BBVA**



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Diputación Foral  
de Gipuzkoa



## AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Antolakuntza egutegia 2018	4
3. Arautegia, jarduera motaren arabera	5
4. Zuzendarientzako arautegia	9
5. Irakasleentzako arautegia	10
6. Ohar orokorrak	11

## 1. Sarrera

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroak Fundazioak Uda Ikastaroak antolatzen ditu. 2018an XXXVII. edizioa egingo da.

UPV/EHUko Uda Ikastaroen helburua da erreferentzia izatea udako ikastaroen artean, beren programan eta prestakuntza formuletan egiten dituzten etengabeko berrikuntzengatik, nazioartean duten proiektioagatik, eskaintzen duten balio erantsiagatik, beren aliantza sarearen hedapen eta sendotasunagatik, Euskal Herriarekin duten konpromisoagatik eta beren antolakuntza kalitateagatik.

Uda Ikastaroen egitekoa hauxe da:

- Jakintza zabaltzea eta hedatzea, UPV/EHUK sortutakoa bereziki, Euskal Herritik eta nazioarteari begira.
- Ezagutza profesionalak eguneratzea, arreta berezia jarritz maila guztietako irakasleen prestakuntzan.
- Unibertsitateen arteko harremana sendotzea.
- Ekarpena egitea euskal kultura eta ikasketen irakaskuntza eta zabalkundeari, nazioarteari begira.
- Leku bat eskaintzea eztabaidari eta pentsamendu kritikoari, etengabe aldatzen ari den gizarte batean, gizarte ongizatea hobetzeko, euskal gizartearena bereziki.

Uda Ikastaroen egiteko osagarri bat da UPV/EHUren irudi positiboa transmititzea, baita erakunde laguntzaile eta babesleena ere.

Egiteko horri begira, Uda Ikastaroak zabalik daude Euskal Herriko, Espainiako eta Europako erakundeekiko lankidetzara.

Uda Ikastaroen XXXVII. edizioa Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan egingo da, eta, ohi bezala, erakunde publiko eta pribatuen laguntza izatea espero dugu.

Gizarteari aurrera egiten lagunduko dion eztabaidarako eta pentsamendu kritikorako plataforma izaten jarraitzeko apustua egiten dugu. Unibertsitateko jendea, ikertzaileak, profesionalak eta gizarte osoa harremanetan jartzen ditugu, gizarteak dituen erronkei buruzko eztabaida bateratua egiteko.

Aurtengo edizioan, honako hauek sustatuko ditugu;

- UPV/EHUren Uda Ikastaroak egingo dira EAEko hiru lurraldeetan eta Iparralden. Eta ez soilik hiriburuetan, baizik eta baita lurraldeko hainbat udalerritan ere.
- Orain arte egin bezala, Uda Ikastaroetan euskarak geroz eta toki handiagoa izan dezan lan egiten jarraituko dugu.
- Berrikuntza sustatuko dugu landutako gaietan eta ikaskuntza metodologia parte hartzaileetan.

Denon artean XXXVII. edizioa arrakastatsua izatea lortuko dugulakoan gaude.

## 2. Antolakuntza egutegia 2018\*

Urriaren 9a	→ Proposamenak jasotzeko epea irekitzea.
Azaroaren 17a	→ Proposamenak aurkezteko epea amaitzea.
Abenduaren 13a	→ Programa Batzordearen bilera.
Urtarrilaren aurrera	→ Onartutako jardueren berri ematea, finantzazio bidea, lekua eta datak barne. Onartu ez diren proposamenak zeintzuk diren jakinaraztea.
Urtarrilaren 26a	→ Jardueraren zuzendariak baldintzak onartzeko epea amaitzea.
Otsailaren 16a	→ Jarduera antolatzen hasteko hartu-emanak.
Otsailaren 28a	→ Izenburua, helburuak eta behin betiko sustatzaileak (hala badagokio) berresteko epea amaitzea.
Behin programa ziurtatuta dagoenean	→ Aurrekontua eta hizlarien partaidetza baldintzak zehaztuko dituzte ikastaro bakoitzaren zuzendaritzak eta Uda Ikastaroen Zuzendaritzak. → Gonbidapen ofiziala hizlariari.
Apirilaren 12a	→ Uda Ikastaroen XXXVII. edizioaren aurkezpena. → Matrikula murrizturako epea zabaltzea.
Ekainaren 1etik aurrera	→ Ohiko matrikulazioa.
Jarduera egin baino 20 egun lehenago	→ Zuzendariak/ek eta hizlariak hitzaldiaren laburpena eta ikasleentzako material osagarria helaraziko dute.
Jarduera egin baino 10 egun lehenago	→ Hizlariak bere hitzaldian erabiliko den dokumentazioa entregatzea.
Ekainaren 4a	→ Uda Ikastaroen hasiera.
Ekainaren 19a	→ Edizioa inauguratzeko ekitaldi ofiziala.
Abuztuaren 3a	→ Lehen etaparen amaiera.
Abuztuaren 20a	→ Bigarren etaparen hasiera.
Irailaren 14a	→ Edizioaren amaiera.

\* Egutegi hau gutxi gorabeherakoa da, eta aldaketak izan ditzake. Antolakuntza egutegiaren azken bertsioa eskuragarri ipiniko da Uda Ikastaroen webgunean ([www.uik.eus](http://www.uik.eus))

### 3. Arautegia, jarduera motaren arabera

**Edizio honetan, asmoa dugu Ikastaroak, Tailerrak, Eskolak, Jardunaldi Profesionalak eta Kongresuak antolatzeko.**

#### 3.1. Aurkezteko epea eta modua

UPV/EHUko Uda Ikastaroen XXXVII. ediziorako proposamenak aurkezteko epea **2017ko urriaren 9tik azaroaren 17ra** bitartekoa izango da.

Proposamenak Uda Ikastaroen Idazkaritzara bidaliko dira, bide hauek erabilita:

- a) **on-line plataforma erabilia**, Uda Ikastaroen web orriko "Proposamenak" atalean eskura daitekeena (<https://www.uik.eus/eu/proposamenak/proposamenak>) (**bide hau erabiltzea aholkatzen da**).
- b) Uda Ikastaroen Idazkaritzan eska daitekeen inprimakia betez ([info@uik.eus](mailto:info@uik.eus)).

Zuzendari bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztuko du, eta bi zuzendari egongo dira gehienez jarduera bakoitzeko.

#### 3.2. Aukeraketa eta finantzaketa

Programa Batzordea arduratzen da Uda Ikastaroen edizioa osatuko duten jarduerak aukeratzeaz. Batzordea osatuko duten kideen zerrenda ikastaroen web orrian dago argitaratuta (<https://www.uik.eus/eu/gutaz/antolakuntza>).

UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak Antolakuntza Batzordeko kideengandik (BBVA Fundazioa, UPV/EHU, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala) jasotzen dituen ekarpenen bidez, fundazioaren beraren egiturazko gastuak eta 50 bat ikastaroren (Arautegiko Ikastaroak izenekoak) gastu espezifikoa ordaintzen dira. Gainerako ikastaroek laguntzaileak dituzte, haien gastu espezifikoez arduratzen direnak (Ikastaroak Lankidetzan).

**Beraz, edizioaren programak bi motatako jarduerak ditu:**

- a) **Arautegiko Ikastaroak:** Ikastaroak edo Tailerrak soilik izan daitezke, Programa Batzordeak hautatu behar ditu eta 3.3 ataleko baldintzak bete behar dituzte. Fundazioak 1.500 € arterainoko kopurua jarriko du ikastaro egun bakoitzeko, baldin eta 40 matrikula lortu eta defizitik sortzen ez bada. Tailerren kasuan, gehienez 750 €/egun jarriko ditu, 25 matrikula lortuz gero, eta gehienez 900 €/egun, 40 matrikula lortuz gero, baldin eta defizitik sortzen ez bada.
- b) **Ikastaroak Lankidetzan:** Edozein motatako jarduerak izan daitezke, arautegi honen 3.3 atalean aipatutakoen artean egonez gero. Babesleak bere gain hartuko du matrikulak emandako diru sarreraren eta jarduerak sortutako gastu espezifikoen arteko aldea. Kasu honetan, jardueraren zuzendariarekin hitzartuko dira baldintzak.

## Bi motatako gastuak daude:

a) **Gastu orokorrak:** UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak ordaintzen ditu, bi modalitateetan jasotako ekarpenen bidez (Arautegiko Ikastaroak eta Ikastaroak Lankidetzan). Honako hauek dira:

- Zuzendarientzako laguntza: diseinu akademikoan eta jardueraren antolakuntzan (programa egitea, irakasleak gonbidatzea, dokumentazioa prestatzea, aurrekontuaren kudeaketa, etab.).
- Zuzendarientzako laguntza: diseinu akademikoan eta jardueraren antolakuntzan (programa egitea, irakasleak gonbidatzea, dokumentazioa prestatzea, aurrekontuaren kudeaketa, etab.).
- Ikasleen gestioa: matrikulak, alojamendua, fakturak eta ziurtagiriak egitea, gogobetetze inkestak, arreta orokorra.
- Azpiegitura eta ekipamendu orokorra.
- Zabalkunde orokorra: zabalkunde kanpaina, publizitatea, prentsa zerbitzua.
- Gastu espezifikoan atalean zehaztutako zerbitzuen koordinazioa.

b) **Gastu espezifikoak:** Arautegiko Ikastaroetan, Fundazioak hartzen ditu bere gain, baldin eta 3.3 ataleko baldintzak betetzen badira. Lankidetzan eginiko ikastaroetan, aldiz, erakunde babesleak/laguntzaileak bere gain hartzen du matrikula sarreraren eta gastu hauen arteko aldea:

- Zuzendarien eta irakasle/hizlarien ordain sariak.
- Zuzendarien eta hizlarien bidaiak eta alojamendua.
- Catering-a (kafea, bazkariak...).
- Azafatak.
- Aldibereko itzulpena, hizlari gonbidatuak ofiziala ez den hizkuntza bat erabiliz gero\*.
- Jardueraren grabazioa.
- Ikasleentzako materialak.
- Gastu teknikoak.
- Kudeaketa gastuak.
- Hedapen espezifikoak.

Hornitzaileek egindako gastuak, ahal den neurrian, zuzenean babesleari fakturatuko zaizkio.

Biltzarren kasuan, kontsultatu baldintza berezi osagarriak Ikastaroen Idazkaritzan.

\* *Jardueraren hizkuntza ofiziala: jardueraren hizkuntza ofiziala/k zehatu egin beharko da/dira, eta hizkuntza horretan/horietan zabalduko da hari buruzko informazioa. Jardueran ofizialak ez diren hizkuntzak erabiliz gero, aldi bereko itzulpena ipiniko da.*

*Helburuei buruzko informazioa eta laburpena hainbat hizkuntzatan jaso nahi dituenarentzat (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez), Ikastaroen Zuzendaritzak bertsio guztiak eskaini beharko ditu web orrian.*

### 3.3. Taula honetan ageri dira zehaztuta jarduera mota bakoitzaren baldintzak.

#### 3.3.1. Ezaugarri orokorrak

ARAUTEGIAREN ARABERAKOAK EDO LAN-KIDETZAN EGINDAKOAK		LANKIDETZAN EGINDAKOAK			
	Ikastaroak	Tailerrak	Kongresuak	Eskolak	Jardunaldi profesionalak
Helburua	Uda Ikastaroen xede nagusia dira. Gai intergarrietan sakondu edo haien inguruko ezagutzak handitzera zuzendutako pres-takuntza jarduerak.	Ezagutza tazituak eta gaitasun praktikoak eskuratzea. Bereziki, sormenari, hobekuntzari eta teknika instrumentalei lotutako gaieninguruan ikasketako.	Adituen topaketak. Ikerlanak, teoriak, esperimentziak eta "know-how"-a garatueta aurkeztea dute xede.	Epe ertainean irauteko asmoz eskaintako prestakuntza espezializatua. Eskolaren tematika orokorraren alderdi zehatz batzuk jorratuz urte bakoitzean.	Sektore profesionalekin lotutako eduki berezien tratamendura zuzenduak.
Antolatzailea			Elkarte zientifikoak edo profesionalak.	Gizarte eragile bat (enpresa, elkarte, fundazioa,...) eta eragile akademikobat (unibertsitatea, ikerketa zentroa,...).	Enpresa elkarteak, elkargo profesionalak, enpresak edo beren jardun eremuan erreferentziakoak diren bestelako erakunde profesionalak.
Iraupena (egunak)	1, 2, 3*	2, 3*	1 eta 5 bitartean	1 eta 5 bitartean	1, 2
Ordutegia	9:00- 14:00 eta 16:00-18:00 bitarte**.		9:00- 14:00 eta 16:00- 19:00 bitarte.		
Saioen iraupena	Oro har: 75 minutu. / Aldi bereko itzulpena behar izatekotan: 60 minutu.				
Irakasle kop.	2 egun: 3. 3 egun: 5. Zuzendaria kopuru horren barnean.	Gehienez 3.			
					Erakunde babesle / laguntzailearekin hitzartuko da.

\* 2 eguneko ikastaroak proposatzea gomendatzen da. / \*\* Saioak soilik goizez izatea gomendatzen da.

### 3.3.2. Gastos específicos

	Ikastaroak	Tailerrak	Kongresuak	Eskolak	Jardunaldi profesionalak
Zuzendarien/hizlarien ordainsariak	Hitzaldi bakoitzeko: 360 € Zuzendaria: 240 € ikastaro egun bakoitzeko, errepresentazio gastuetarako*. Mahai ingurua: 400 € (guztira, parte hartzaileen artean banatu beharrekoa)	Tailerrak 25 matrikulekin: 750 € eguneko Tailerrak 40 matrikulekin edo gehiagorekin: 900 € eguneko			
Joan-etorriak	Uda Ikastaroen antolakuntza arduratuko da zuzendarien eta hizlarienjoan-etorriez. Joan-etorrietarako, garraio publikoa erabiliiko da. Hegazkin bidaiak turista klasean egingo dira. Nork bere ibilgailua erabili nahi badu joan-etorrietarako, Zuzendaritzarekin hitzartu behariko du. Bidaia txartelak aldatzeak dakartzan gastuak parte hartzailearen bizkar geratuko dira.				
Alojamendua	Ikastaroa egingo den lekuan edo inguruetan bizi ez diren irakasleei eta zuzendariei alojamendua eta mantenua eskainiko zaizkie; antolakuntzaren kontura: → Gutxienez bi lezio (mahai ingurua ez da leziozat hartzen) ematen dituzten irakasleei afaria, ostatua eta gosaria emango zaie. → Uda Ikastaroek ez dute mahai inguruetako hizlariengasturik ordainduko. → Zuzendariak Uda Ikastaroek ordaindutako alojamendua eta mantenua izango ditu, jarduera bezperatik hura amaitzen den egunera arte.				
Bazkariak	Hizlariet bazkarirako gonbita egingo zaie hitzaldi egunean. Zuzendariei, ikastaroak irauten duen egun guztietan.				

\* Errepresentazio gastuak: ikastaroaren zuzendaritzari dagozkion berezko gastuak estaltzeko esleipena (hizlariet gonbidapenak, garraioak, e.a). Tikitak aurkeztuz gero beraien zenbateko osoa ordainduko da eguneko 240 € arte; bestela, ordainsari bezala ordainduko da dagokion erretentzioa aplikatuz.



## 4. Zuzendarientzako arautegia

### Zuzendariaren ardurak izango dira hauek:

- Proposamenak egin, eta programa Arautegira egokitzea (baldin eta Arautegiko jarduera bat bada). Aholkuak:
  - Irakasle kopurua txikitzea, eskola kopuru handiagoa egokituz parte hartzaile bakoitzari.
  - Laburpen eta eztabaida saioak sartzeta.
  - Metodologia parte hartzaileak erabiltzea.
  - Aldez aurretik jardueraren eduki orokorraren plangintza egitea, garapen tematikoaren eta ikasle hartzaileen arabera, eta ez parte har lezaketen irakasleen arabera.
- Antolakuntza egutegia betetzea.
- Hizlariari orientabidea ematea:
  - Jardueran izango duten partaidetzaren berri ematea, eta arautegia, partaidetza baldintzak eta antolakuntza egutegia azaltzea.
  - Euren txostenak prestatzeko jarraibideak ematea, haien arteko koherentzia eta koordinazioa bermatzeko.
  - Zuzendaria arduratuko da hizlari bakoitzak bere hitzaldiaren laburpena, bestelako dokumentazioa eta hitzaldian erabiliko duena presta dezan, ikasleen eskura jartzeko.
- Programaren hedapenean parte hartzea:
  - Ikastaroari buruzko informazioa bere sareetan zabaltzea.
  - Ikastaroaren laburpen bat egitea, eta Prentsa Bulegoari hizlari eta gai garrantzitsuenak zein izango diren jakinaraztea, prentsa ohar bat egin dezaten.
  - Hedabideei erantzutea, Uda Ikastaroen prentsa zerbitzuaren laguntzaz.
- Ikastaroak iraun bitartean:
  - Jarduerara bertaratutakoei ongietorria egitea, lehen egunean jarduera aurkeztea eta laburpen saioak koordinatzea.
  - Irakasleei jarraipena egitea eta haien ondoan egotea jarduerak iraun bitartean.
  - ikasleek aurretik ezagutzen duten programa betetzen dela ziurtatzea.
- Ikastaroa amaitzean:
  - ikastaroaren laburpen bat egitea, Edizioaren Urteko Memorian sartzeko.
  - ikastaroaren amaierako gogobetetze inkesta betetzea.

Jarduera amaitzean, UPV/EHUko Uda Ikastaroen antolakuntzak jarduerari buruzko txosten bat Ikastaroaren Zuzendaritzari igorriko zaio (behin betiko programa, parte hartzaileen zerrenda, gogobetetze emaitzak, hedabideetan izandako oihartzuna, etab.).

Ikastaroaren kudeaketa lana on-line plataforma baten laguntzarekin egingo da; horrek asko erraztuko du ikastaroaren antolakuntzan parte hartzen duten eragile guztien arteko komunikazioa.

## 5. Irakasleentzako arautegia

Zuzendariak hizlariak gonbidatuko ditu bere ardurapean dagoen jardueran parte hartzera, eta arautegia, parte hartze baldintzak eta antolakuntza egutegia azalduko dizkie.

Parte hartzea berretsita, jardueraren zuzendariak behin betiko programa itxiko du, eta Uda Ikastaroen Idazkaritzari jakinarazi ondoren, hizlariekin jarriko da harremanetan.

→ Irakasleak honako hauek aurkeztuko ditu:

- Datu pertsonalak, curriculumaren laburpena eta argazkia barne.
- Bidaia eta alojamendurako datuak, zerbitzu horiek behar izanez gero.
- Bere txostenaren laburpena, jarduera hasi baino 20 egun lehenago.
- Ikasleen esku jarri nahi duen materiala, jarduera hasi baino 20 egun lehenago.
- Bere txostena, jarduera hasi baino 10 egun lehenago.

→ Arautegiko Ikastaro eta Tailerretan, 3.3.2 puntuko taulan jaso diren ordainsarien irizpidea beteko da. Defizit kasuan, egokitu egingo dira irakasleen ordainsariak, ikastaroko eta tailerreko zuzendarienak bezala.

→ Lankidetzan eginiko Ikastaroen kasuan, babesleak/laguntzaileak ezarriko ditu parte hartze baldintzak, Uda Ikastaroen Zuzendaritzarekin batera.

→ Hitzaldiak ematean metodologia parte hartzaileak erabiltzea eskatzen da.

→ Jarduera amaitzean, Uda Ikastaroen Idazkaritzak ziurtagiri bat emango du, eta gogobetetze galdetegi bat, interesdunak bete dezan.

Hizlarien parte hartzearen kudeaketa lana on-line plataforma baten laguntzarekin egingo da; horrek asko erraztuko du ikastaroaren antolakuntzan parte hartzen duten eragile guztien arteko komunikazioa.

## 6. Ohar orokorrak

Uda Ikastaroen Zuzendaritzak **jardueraren bat bertan behera uztea** erabaki dezake:

- jarduera hasita arautegia betetzen ez bada,
- matrikula kopurua gutxienera iristen ez bada (40 matrikula ikastaroen kasuan, 25 matrikula tailerren kasuan) gutxienez 15 egun lehenago, edo, bestela,
- baldin eta jarduerak defizita ekar badezake.

Lankidetzan eginiko ikastaro batean zuzendariak jarduera bertan behera uztea erabakitzen badu, baliogabetze tasa bat aplikatuko da, izandako antolamendu gastuengatik.

### Ley Orgánica de Protección de Datos:

Datu pertsonalak, irudiak eta ahotsa barne, fitxategi berezietan gordeko dira, UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOAREN ardurapean. Datuak bildu eta lantzearen helburua da, hain zuzen, horien kontabilitate eta administrazio kudeaketa egitea eta eskaintzen diren ikastaro guztiak artxibatzea, irakaskuntza edo ikerkuntza lanetan erabiltzeko etorkizunean. Gordetako datu pertsonalak ez dira hirugarrenen esku utziko edo ez dira jakinaraziko, legeak ezarritako kasuetan edo ikastaroaren helburua betetzeko beharrezkoa denean izan ezik. Nahiz izanez gero, datu pertsonaletara sartzeko edo horiek zuzentzeko, ezeztatzeko, eramateko zein datuen tratamendua mugatzeko eskubideak erabil daitezke, edo emandako baimena baliogabetu, idatzi bat bidalita Fundazioaren egoitzara, NANaren kopiarekin.

### Jabetza intelektual:

HIZLARIAK hitz ematen du hitzaldian erabiliko duen materialaren jabetza intelektualaren gaineko eskubideen titularra dela, eta jabetza hori karga orotatik libre dagoela.

HIZLARIAK baimena ematen dio UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOARI edukiak zabaldu eta argitaratzeko.

### Irudiaren eta ahotsaren lagapena:

HIZLARIAK / ZUZENDARIAK baimena ematen dio UPV/EHUko UDA IKASTAROAK FUNDAZIOARI bere ikastaroa edozein ikus-entzunezko euskarritan jasotzeko, haren erreproduzio, banaketa edo komunikazio publikorako; zehazki, jardueran zehar hartutako bere irudia eta ahotsa jasotzeko. Doan ematen den baimen honen barnean, jasotako materialak izan ditzakeen ikerketa edo irakaskuntza erabilera guztiak barne hartzen dira, edozein bitarteko edo euskarri erabilita, hedabideak edo sare sozialak barne. Baimen honek irakaskuntza edo ikerketa erabilera izango du, eta ez du inolako denbora mugarik izango emakidari edo ustiapenari dagokionez. Era berean, hemen emandako baimena ez da mugatzen eremu geografiko zehatz batera.

**Uda Ikastaroetan parte hartzeak esan nahi du Arautegia onartzen dela.**